

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN KULTURA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA (FECYT) 2023

UPV/EHUren AURKEZPEN EPEA: 2023/09/01etik 2023/10/03ra, 12:00etan

Deialdiaren helburua:

FECYT-en laguntzak emateko prozedura arautzea, kultura zientifikoa, teknologikoa eta berrikuntza sustatzeko jarduerak egiteko, honako proiektu-kategoria hauen bidez:

- a. Zientziaren eta teknologiaren gizarte-komunikazioko proiektuak.
- b. UCC+I jardueren urteko programa.
- c. Zientzia azokak.
- d. Proiektu bereziak:
 1. Mtz. Herritarren zientzia
 2. Arte, Zientzia, Teknologia eta Gizartea.
 3. Ikerketa eta praktika komunikazio zientifikoan.

Ikertzaile nagusiaren betekizunak:

UPV/EHUrekiko funtzionario- edo kontratu-lotura, eskaera aurkezten den unetik eta proiektua gauzatzen den bitartean.

Ikerketa-taldeko kideen betekizunak:

- Ikertzaile nagusiek funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura izan beharko dute UPV/EHUrekin, eskabidea aurkezten den unetik eta proiektua gauzatzen den bitartean.
- Eskabidea aurkezteko unean, taldeko kideek funtzionario, estatutu edo kontratu bidezko lotura izan beharko dute EHUrekin.
- UPV/EHUtik kanpoko ikertzaileek beren jatorrizko erakunde baimena izan beharko dute proiektuan parte hartzeko. Baimen hori, gainerako agiriekin batera, deialdiak@ehu.eus helbidera bidali beharko da.

Laguntza gauzatzen ari diren bitartean UPV/EHUrekin harremana amaitzen duten ikerketa-taldeko kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek irauten duen bitartean. IPa arduratuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzari proiektua gauzatzean gertatzen diren bajen berri emateaz.

GARRANTZITSUA: Laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako jarduketaren kostu osoaren %70erainokoa izan daiteke, 100.000 euroko mugarekin.

Eskatzaileak konpromisoa hartu beharko du jasotako diru-laguntzaren eta jardueren kostuaren % 100aren arteko aldea finantzatzeko. Horretarako, zer finantzaketa-iturri dituen adierazi beharko du.

Organoren bateko arduradunak ez badu parte hartzen eskabidean, dagokion baimena eskatu beharko dio organo horren arduradunari.

Informazio gehiago:

[Deialdia](#)

Deialdiari buruzko zalantzak: convocatoria@fecyt.es

Parte har dezaketen langileei buruzko zalantzak: igz.deialdiak@ehu.eus